

KIROL-INSTALAZIOAK ABONATU GISA ERABILTZEKO GIZARTE-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA, 2021ERAKO

1. XEDEA

Diru-laguntza sozial hauek helburu dute diru-gabeziak dituztenek kirolean egitea benetan bermatzea, kirolak herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen die eta euren garapen pertsonal integralarentzat ere mesedegarri delakoan. Era berean, KUIk uste du gorputz-kiroletako jarduerak egitea eskubide bat dela, osasunari laguntzen diotela, jolasa sustatzen dutela eta gizabanako guztien gizarte-harremana eta -integrazioa hobetzen dutela, eta botere publikoei dagokiela horiek sustatzea.

2. HARTZAILEAK

Hartzaitzat hartuko dira Santurtzin erroldatutako pertsona guztiak, baldin eta haien baliabideak ez badira nahikoak abonuetarako ezarri den kostuari aurre egiteko.

Erregelamendu bidez ugarizat kalifikatutako familiek zuzenean jasoko dituzte araudi honetan jasotako gizarte-laguntzak. Horretarako, eguneratutako tituluaren fotokopia eta erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte ordainketa eskatzeko unean, eta ezin izango da berrikusi hura indarrean dagoen bitartean, gainerakoetarako ezarritako epean egin beharrik izan gabe.

3. BALDINTZAK

Baldintza hauek guztiak betetzen dituztenak izan daitezke laguntza horien onuradun:

- a) **Santurtzin erroldatuta egotea.**
- b) **Dagokion kuotaren % 50 ordaindu izana, erabilera-konpromiso gisa.**
- c) **Baremoan jasotako gehieneko baliabide ekonomikoak edukitzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) azken aitopenen bidez egiaztatuak.**
- d) **Ez izatea Udalarekin ordaindu gabeko zorrik.**

Laguntza honen ondorioetarako, ez dago baliabide nahikorik, baldin eta pertsonak edo, hala badagokio, familia-unitateak 5. puntuko baremoan jasotako urteko baliabide berdinak edo txikiagoak baditu, familia-unitateko kide-kopuruaren arabera.

4. BALIABIDEAK ZEHAZTEA

Baliabideak zehazteko, familia-unitatea osatzen duten pertsonen jasotzen dituzten baliabideak zenbatuko dira, errentak, ordainsariak, pentsioak edo beste edozein titulu edo kontzeptu direla medio.

Era berean, baliabidetzat hartuko dira ondasun higigarri edo higiezinak, baldin eta ondasun horien gaineko jabetza-, edukitza- edo gozamen-titulu juridikoa badute eta etekin ekonomikoak sor baditzakete, bai eta benetan jasotzen dituzten etekinak ere.

5. BAREMOA

Ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eta hurrengo baremoa gainditzen ez duten gehienezko baliabideak dituzten eskatzaileei emango zaizkie laguntzak.

Familia-unitatearen kideak	1	2	3	4
Urteko gehieneko zenbatekoa eurotan	18.900,00	25.571,70	30.241,09	34.910,32

6. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Laguntza dagokion urteko ordainketaren tasaren zenbatekoaren % 50 izango da. Ebazpen-erabakia ezezkoa bada, laguntza ukatzeko jakinarazpena jasotzean, eskatzaileak gainerako % 50a ordaindu beharko du ordainketa osatzeko, edo, bestela, baja emango zaio, eta, horrela, ezin izango da instalazioetara sartu.

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Eskaria behar bezala bete.
2. Urteko abonuaren titularraren NANaren fotokopia.
3. Familia-errolatzearen ziurtagiria.
4. Azken ekitaldiko pertsona fisikoen errenta-aitorpenaren fotokopia, edo, halakorik ezean, Ogasunak emandako **ondare-ondasunen** ziurtagiria.
5. Familia-unitateko kide guztien egungo diru-sarreraren egiaztagiria. Langabezia daudenean, berriz, Gizarte Segurantzaren "lan-bizitza" eta prestaziorik jasotzen ez dutela egiaztatzen duen SEPEn ziurtagiria.
6. **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)** edo antzeko laguntza jasotzen ari bada, ez dira 4. eta 5. puntuetako agiriak aurkeztu beharko, baina bai, ordea, laguntza jasotzen ari dela egiaztatzen duen agiria.
7. Autonomia izanez gero, dagokion errenta-aitorpena eta Ogasunak emandako **ondare-ondasunen** ziurtagiria.

8. EPEA

Eskariak aurkezteko epea **2021eko OTSAILAREN 8tik 12ra izango da, 10:00etatik 14:00etara**, Mikel Trueba Kiroldegian. Aurretiko hitzordua eskatu behar da telefonoz edo aurrez aurre.

9. EBAZPENAREN PROZEDURA

Eskariak aurkezteko epea bukatutakoan, KUIk eskaera bakoitzean dagoen dokumentazioa egiaztatuko du, eta gehienez ere bi hilabeteko epean, eskaera ebatziko du eta idatziz jakinaraziko die eskatzaileei.

Adierazpenean jasotako datuak benetakoak ez direla egiaztatzen bada edo funtsezkotzat jo daitezkeen beste batzuk ezkutatu badira, eskaria ezetzi egingo da.

**KUIko KIROL-INSTALAZIOAK
ERABILTZEKO GIZARTE
LAGUNTZEN ESKARIA 2021erako**

**SOLICITUD DE AYUDAS SOCIALES
PARA LA UTILIZACION DE LAS
INSTALACIONES DEPORTIVAS DEL
I.M.D. PARA 2.021**

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	
N.A.N. / D.N.I.:	
Helbidea / Dirección	
Telefonoa /Teléfono	
Abonu zk. / N° Abono:	
Erregistroa / Registro:	

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT
DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD

1. <i>Aurreko urtean familiak jasotako diru sarrerak hauexek direla:</i> 1. Que los ingresos percibidos por la unidad familiar en el año anterior, son:
2. <i>Ditudan ondasunak hauexek direla:</i> 2. Que los bienes que poseo son los siguientes:

ESKATZEN DUT/ SOLICITO:

Kirol Instalakuntzak 2021
urteanerabiltzeko dirulaguntza eman
diezadatela urte osorako abonu moduan

Me sea concedida la ayuda económica para la utilización de las Instalaciones Deportivas en concepto de abono anual para el año 2.021.

Sinadura / Firma

SR. PRESIDENTE EL INSTITUTO MUNICIPAL DE DEPORTES DE SANTURTZI

Santurtziko Kiroletarako Udal Institutuak abenduaren 13ko 15/1999 Legea, datu pertsonalak babestekoa, bete nahian, jakinarazten dizu ematen dizkiguzun datuak KUIren titularitateko fitxategietan sartuko direla, bere eskumenen barruan kirol kudeaketaren zereginetan jarduteko. Nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, kendu edo aurkatu ahal izango duzu KUIko bulegoan, Reina Victoria etorbidean, z/g. 48980 Santurtzi.

El Instituto Municipal de Deportes de Santurtzi, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa de que los datos personales que nos proporcionen serán incluidos en ficheros de titularidad del IMD, para la realización de tareas propias de la gestión deportiva. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la oficina del IMD en P. Reina Victoria s/n, 48980 Santurtzi.